

LAN BATZORDE IREKIAK

TALDEA	ONGIZATE BATZORDEA		
IRAUPENA	ORDU 1	EGUNA	2018-06-26
GAIA	-	DEIALDIA	19:00

PARTE HARTZAILEAK

Iñaki Etxezarreta	Jabier Garcia	Arantxa Bidegain	Iker Etxezarreta
Eli Elgarresta	Endika Igarzabal		

ERABAKIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
ZABORRAK	<ul style="list-style-type: none">● Gabiriak 6.7 kg botatzen ditu biztanleko errefusara. Mutiloak 17 eta Itsasok 14, besteak beste, segurak 6.● Errefusaren ontzia astean bitan irekiko da soilik: asteazken eta igandetan. Pixoihalak behar dituztenei egunero erabiltzeko aukera emango zaie. Irailean jarriko da martxan.● Gabiriako hainbat etxe Itsasoko gunera zaborra botatzen dutenaren inguruan, ez dago berririk.		
ETXEBIZITZA	<ul style="list-style-type: none">● Arroako gaiarekin lotuta, aste honetan daukagu bilera bat beraiekin, eta proposamen bat aurkeztekotan dira. Helburua, proiektua zatika egin ahal izatea da.		
HAURTZAINDEGIA	<ul style="list-style-type: none">● Uztalean itxiko da eta ea noiz dagoen irekitzeko aukera.		
EGUNEKO ZENTROA	<ul style="list-style-type: none">● Ormaiztegiko eraikina amaitzen ari dira. Aste honetan daukagu Ormaiztegi eta Itsasoko udalekin bilera bat eta gai hau ere landuko da.		
DESFIBRILADOREA	<ul style="list-style-type: none">● Udaletxean daukagu baina jartzea falta da.		
INDARKERIA MATXISTA	<ul style="list-style-type: none">● Aldundiak protokolo berri bat egin du gai honen inguruan, horrelako zerbait gertatuko balitz udalak zein jarrera hartu beharko luken kanpora begira zehaztuz (prentsa, komunikatuak...).● Lehendik ba omen zegoen beste protokolo bat, baina beste enfoke bat zeukan dirudienez. Eman beharreko pausuen inguruan zen, Goierri mailakoa, dirudienez.		
AUTOBUS ZERBITZUA	<ul style="list-style-type: none">● Kexak jaso dira, autobus zerbitzua ez datorrelako bat Ormaztegitik aurrera mugitzeko, eta bertan denbora asko itxaron behar izaten delako.● Goierrialdean izan gara eta Gabirira datorren autobusa beste herri batzuetatik pasatzen denez, gainontzeko herriekin gaia lantzeko aholkatu digute, ordutegiak adosteko.		

HURRENGO BILERA: urriak 9, 19:00tan